

«PARETAK MINTZO»

«Todavía en nuestros días, los humildes, los miserables, los despreciados, los rebeldes ávidos de libertad y de independencia, los proscritos, los vagabundos y los nómadas, hablan el 'argot'».

FUNCANELLI: El misterio de las catedrales.


— «Hi, ikusi al duk paper hau?», -galdetu zidan nire lagun batek folio neurriko paper bat nire eskura luzatuz.

Begiradatxo bat eman ostean erantzuna berehala atera zitzaidan:

— «Nola ez, ba. Lehengo egunean lantokian lankide batek erakutsi zidaken. Pasada bat duk, ezta?»

Esku artean geneukan paper hori Astigarragako Udalak banatutakoa zen eta bertan gaizkileek maltzurkeriak burutzeko erabiltzen omen dituzten ikurretaz jendeari oharrrarazten zitzaion. Ohar horrek dionez, gaizkile, eskale, birsaltzaile, saltzaile ibiltari, eta abarrek (denok zaku berean sarturik) kode izkutu bat erabiltzen ohi dute haien gaiztakeriak burutzeko.

Hau ez ezik, jendeari zenbait gauza gogorazten zaio, hain zuzen, noizbait berari toka dakiokela maltzurkeria baten biktima izatea, atea zabaltzerakoan adi ibili behar duela, eta ba-



Astigarraga, a 26 de Noviembre de 1992.

AVISO IMPORTANTE.

Este documento ha sido encontrado en el vehículo de un delincuente y se ha constatado, por personas ya robadas, que los signos indicados son ciertos.

Dichos signos son pintados con tiza, lápiz o marcados con algún objeto punzante en los timbres de entrada, suelos e incluso debajo de felpudos de entrada o paredes.

Naturalmente, no tienen hora, pero se ha observado que entre las 13'00 y a las 16'00 horas, son realizados gran parte de los signos por los delincuentes mendigos; revendedores, vendedores ambulantes, etc.

Por tanto aconsejamos:

- 1-NO PIENSE QUE A USTED NUNCA LE VA A TOCAR
- 2-ANTES DE ABRIR LA PUERTA CERCIORESE DE QUIEN ES


3-SI OBSERVAN ALGUNA SEÑAL DE AVISO ALA GUARDIA MUNICIPAL O A LA ERTZANTZA

4-LO MAS IMPORTANTE; ROGAMOS DEN LA MAYOR DIFUSION POSIBLE A ESTE COMUNICADO ENTRE FAMILIARES, AMIGOS, VECINOS, COMUNIDADES, CENTROS DE TRABAJO, ETC.


Los signos en cuestion son los siguientes:

casa deshabitada	◇	squl nede	
casa ya robada		cuidado policia	
mujer sola	△	nede de interes	
inutil insistir	○	causa ceritativa	
de vacaciones	∩	muy buena	
robar-invalido	/	cuidado hay perro	
cjo vuelven pronto		lqui se puede robar	
user valencia	∩	solo viven mujeres	
disuete para robo	X	abren con cadena	
no robar-subnormal	⊙	luena acojide	
comunidad con guarda	∩	Ca hable de Dios	

ALKATE-LEIENDAKARIA.



MIKEL ZABALA ARREGUI.



tez ere, guztion ezagutzarako ohar hori auzokide, lagun eta ezagunen artean zabalteko gomendioa egiten zaio. (Ondoan doakizue ohar horren kopia, erderaz soilik horrela banatu baitute).









— «Ba, aurreko egunean, EGINeko Pasaiako kronikan leitu nian nola bertako Udaltzaingoak ere ohar hori zabaldu zian auzokideen artean».

Adiskideak zerbait gehiagoaren esperoan dagoenaren aurpegia zeukan eta, jakina, nere iritzia zabaldu behar izan nion:

— «Esan diat, pasada bat iruditzen zaidak. Lehenengo eta behin, ezin dituk zaku berean sartu eskaleak, lapurrak, kale saltzaileak, arloteak, e.a., eta denak gaizkileak direla esan. Ohar horrek guzti hoiak kriminalizatzen dituk, aldez aurretik ez dakigun zeren erruduntzat hartuz. Gainera, ohar honi esker ez zekiat zenbat lapurketa ekidingo diren, baina ziur negok jendearen artean ereingo eta zabalduko duen izu, beldur eta mesfidantza benetan handia izango dela».

Gelako giroan gai honen inguruan gure arteko adostasuna nabarmena zen. Sintonia honetan murgildurik, momenturako alde aurretik prestaturik zeukan Alfonso SASTREren liburu bat luzatu zidan, «Lumpen, marginación y jerigonça» izenburukoa, eta behatz mugimendu arin batez «Paredes que hablan» atalean zabaldu zidan liburua. Bertan, SASTREk zera zioen, paretak mezuez beterik daudela iragarkiez, pintada edo graffitiez josirik:

«Arloteak paretetan bere esperientzia isladatzen du eta era horren bitartez bere anaia ezezagunari komunikatzen dio, eta era berean beste anaia ezezagunek berarentzako utzitako mezuak irakurtzen ditu».

	Beldur naiz
	Leku arriskutsua
	Arriskua
	Hiri hezea
	Dena ondo doa
	Etxean sar daiteke
	Segi
	Oso ondo

SASTREren "Lumpen, ..." liburutik hartuta

— «Lerro hauetan -esan zidan adiskideak- SASTRE Estatu Batuetan berak ezagututako arloteei buruz ari duk, tramps izenekoak, baina, udaltzaingoak zabalduetako oharrean egiten duen bezala, XX. gizaldiko eta garai guztietako nomadei zabal dezakegun irazkina duk hau, hauek baitituk beraien artean komunikatzeko kode berezia erabiltzen dutenak».

SASTRE berak honela azaltzen du bere liburuan:

«... kode partikularrak eta izkutuak, kriptikoak eta, zentzu honetan argotiarak: hasitakoentzako bakarrik ulerkorrak».







Izkutua, kriptikoa, argota,... atmosfera bitxi bat nagusitu zen

gutaz eta, giro honetan murgildurik geundela, adiskideak aprobetxatu zuen prestaturik zeukan bigarren liburu bat ateratzeko.

Liburua edizio merkez argitaratuta aurki daitekeen altxor txiki horietako bat zen: CLÉBERTen «Los gitanos» liburua, hain zuzen.

CLÉBERTek dionez, ijitua batez ere nomada da, eta munduko nomada guztiak bezala, badauka kode izkutu bat «**patrin**» (edo patran) izeneko. Ikur konbentzionalak osaturik, beste ijituekin elkarri komunikatzeko eta informazioa transmititzeko baliogarria da patrina. «Patrin» hitz indiarra da, hosto esan gura duena, eta hala da, naturaren osagaiak edota grabatutako edo marraztutako ikurraz baliatzen baitira mezuak transmititzeko. 1867. urtean argitaratutako «Diccionario gitano» kontsultatuz gero aurkituko dugu:









PATERAN: marca, señal, guía (en los caminos) // chitaron yes trijul e pateran = pusieron una cruz por guía en el camino.

	Hemen jai dugu
	Eskuzabalak
	Eskaleari harrera txarra
	Hemen ijitoa lapur
	Kartak jaurti daitezke
	Etxeko jauna hil berri da
CLÉBERTen liburutik hartuta	

CLÉBERTek bere liburuan honela jarraitzen du bere idazlana:

«Ijituen patrinaren ikurrak beste herri guztietako arloteenekin gonbara daiteke: hala nola, «tramps» amerikarrak eta arlote alemandarrek hizkera izkutu bera erabiltzen baitute. Ikurrak, jakina, ez dira erabat berdinak. Hala ere, hirukiak beti adierazten du zailtasunaren bat edo zeozer ezkorra, eta zirkulua gai on bat».

Zeinuen magiak bultzaturik, biok han hemenka hasi ginen liburuen artean sinbolo, ikur, eta zeinuen bila, elkarren artean gonbaratuz eta osatuz. Bilketaren emaitza oso aberatsa izan zen: eskatuek pista jokuetan erabilitako zeinuak, tramp amerikarren ikurrak, sinbolo unibertsalak, lehen idazkeretako piktograma eta ideogramak, ieroglifikoak, ijituen patrina,... eta artikulutxo hau idazteko parada eman digun udaltzaingoaren ohar honetan agertzen den gaizkileen kode hori.

				Hau da bidea
				Bira eskubitara
BADEN-POWELen "Escultismo para muchachos" liburutik				

— «Hi, gustora negok, baina ezin nauk bihar arte hemen gera».

Ilunabarrean, etxeratzerakoan, pasatako azken ordu hoiek eskeinitako une atseginak neramatzan nerekin, baina kezka bat ere bai, idazki honen hasieran azaldu duguna hain zuzen. Oso kezkarria baita jendea motiborik gabe kriminalizatzea. Bizitzeko eta espresatzeko beste modu bat edukitzeak nahikoa iruditzen zaio zenbaiti gizartean bazterturik dagoen jende multzo zabal bat erruduntzat hartzeko. Eta hau ezin dugu ontzat hartu inolaz ere, eta horrek daukan arrisku handiaz jabetu behar gara. Zeinuak erabiltzen dituen idazkera hori beste moetak espresibide tradizionala da, SASTRE-ren hitzetan:

«... marginazioaren hizkera mutua zeinek kasurik gehienetan arlote bakartien elkartasun ikustezinaren defentsarako mezua transmitzea baino besterik nahi ez duena».

IDAZKERAREN HISTORIARI GAINBEGIRADA

Idazkera momentu historiko zehatz bati erantzuten dio, garai eta leku konkretu eta jakin batean sortzen eta garatzen dena. Beraz, egoera sozioekonomikoak, kriterio estetikoak barne dudarik gabe, moldatzen du idazkera.

Gure kulturaren idazteko hogeitamar hizki gutxi gora behera erabiltzen ohi ditugu behar duguna adierazteko, **alfabeto** izenarekin denok ezagutzen duguna, baino hau ez da beti horrela izan eta honera iristeko idazkerak bide luze bat jorratu behar izan du. Alfabetoaren sorrera ez da idazkeraren eboluzio eredu bakarra munduan egun hura nagusi izan arren, Txinako kulturaren kasu bertako idazkera beste eboluzioa izan duen idazkera eredu garrantzitsu eta ezberdina baitugu.

Hasiera batean, orain dela milaka urte, marrazkiak, ikurrak eta irudiak erabiliak izan ziren nagusiki eta dakigunez modu bakarrez gauzak eta izakiak izendatzeko. Ikur hauek **piktograma** izenez ezagutzen ditugu.

Beharren poderioz, Neolitos garaian nekazaritza eta abelzaintzak sortutako konplexutasun berriei nolabait erantzuteko, marrazki, ikur eta irudi hoiek sistema gisa antolatu ziren, eta honela, hasiera batean piktogramek esan nahi zutena baino ez bazuten adierazten, denborarekin beraien artean erlazionatuz eta gonbidatuz, gauzak ez ezik ideiak ere transmititzea lortuko zuen **ideograma** nagusituko da espresatzeko tresnatzat.











Ideograma berrikuntza handi bat suposatu bazuen ere, eskasa edo gertatu zen eta piktograma eta ideograma hoiek hotsak edota fonetikoki antza zeuzkaten beste ideiak adierazteko erabiliak izan ziren, **fonetismoa** alegia, gaur egun silaba bezala ezagutzen dugunaren antzekoa nolabait adierazteko.

Egiptoko **ieroglifiko**etan hain zuzen aurki genezake orain arte esandako guztia bildurik. Piktograma, ideograma eta fonogramen bitartez osatu zen benetako idazketa oso bat, ahozko hizkuntza zehazki jasotzen duena hala nola edozein eduki bai konkretu baita abstraktoak ere idatziz adierazteko aukera ematen duena.

Alfabetoa feniziarren eskutik sortu zen piktogramak erabiliz eta ieroglifiko egipziarretik abiatuz. Hogeitabi hizki erabiliz adieraz zitekeen ejiptiar batek ehundaka hieroglifiko ezan zezakeen gauza bera.

Ordu ezkerro, milaka urte pasa dira, alfabetoa zabaldu eta nagusi egin da baina piktograma ez da guztiz desagertu. Hain urruti dagoen Txinako idazkeran ez ezik, gure artean oraindik bizirik dira piktogramak egunerokotasunez beterik eta gainera, zenbait udalek zabaldukoaren arabera, oso praktikoak! Ez al gaude akaso ohituta marjinatuak zibilizazioak txokoratu duena aprobetxatzen ikustera? Ez al da hori iji-tuaren irudi klasikoa, edo arlo-tearena? Patrinak eta estilokoak ez ote dira baztertutako idazkera baten aprobetxamendu praktikoa?

IÑIGO ETXEBESTE

TRAZADOS PROTOHISTÓRICOS (EGIPTO, CHIPRE...)	CANANEOS Y CARTAGINESES	VARIANTES DE LOS GRIEGOS	VARIANTES DE LOS ETRUSCOS	LETRAS LATINAS
IV y III MILENIO a. de J.C.	SIGLOS XII y VIII a. de J.C.	SIGLO IX a. de J.C.	SIGLO VIII a. de J.C.	SIGLO VI a. de J.C.
				
				
<p>Alfabeto hitza erro kananearrak dauzkaten "alif" (idi) eta "beit" (etxe) hitzetatik dator. CHABOT, "Historia de la Escritura".</p>				

